

## **Foru Aldundiak 37 ikastetxetara eramango du bizikletaren erabilera sustatzeko hezkuntza proiektu bat**

*Prestakuntza teorikoa eta praktikoa duten saioak eta ibilbide seguruak ditu*

*Jon Nogales: "Egiturazko proiektu hau Sailaren programazioan sartuko dugu, belaunaldi berrien hezkuntza funtsezkoa baita gaur eta, batez ere, bihar mugikortasun jasangarrian aurrera egiteko"*

**Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 3a.** Arabako Foru Aldundiak hezkuntza proiektu bat jarriko du abian datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle arabarren artean, sustatzeko bizikleta garraiobide jasangarri eta osasungarri gisa erabiltzea. Ekimena lurraldeko ikastetxe guztietara iritsiko da, Vitoria-Gasteizkoetara izan ezik, eta prestakuntza teoriko eta praktikoko saioak eta ibilbide seguruak ikasteko talde txikietan egingo diren irteerak izango dira.

Jon Nogales Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak proiektu pedagogiko hori iragarri du gaur Arabako Batzar Nagusien kontrolerako osoko bilkuran, Bizikletaren Munduko Eguna dela eta, NBEk 2018an ezarri zuen urteurrena, hain zuzen ere, bizikletaren erabilera mundu osoko garraiobide gisa ikusarazteko eta sustatzeko.

"Aukera hau baliatu nahi dut ospakizun honekin bat egiteko, Foru Gobernu garez, eta helburu horretan aurrera egiten jarraitzeko konpromiso berresteko, plangintzatik sortzen diren politika publiko erreal eta zehatzekin", esan du.

Nogalesek azaldu duenez, Arabako Bizikletaren Estrategia 2022an onetsi zen, inplikaturako erakunde eta eragileen parte hartzearekin, eta bizikletaren erabilera sustatzeko behar diren neurriak definitzen dituen ibilbide orria da. Azpimarratu duenez, 2023-2025 lehen hirurtekoaren ebaluazioak aukera ematen du "balantze positibo bat egiteko, ardatz gehienetan aurrerapen garrantzitsuak eginez, bizikleta bideak eta ibilbide berdeak nabarmen garatuz eta aurrekontu betearazpen handia eginez".

Foru diputatuak ziurtatu du asmoa dela aurrera egiten jarraitzea neurri eta politika publiko eraginkorrek bizikletaren pisua handitzeko arabarren mugikortasunaren *mixean*, eta adierazi du "batzuk aurten bertan argitaratuko dira, hasita Elciego eta Laguardia arteko bizikleta bide berriaren proiektua idazteko kontratuaren lizitaziotik datozen asteetan. Gure helburua da obrak 2027an hastea".

"Lau kilometro baino gehixeagoko ziklista bide horrek bizikletaz seguru eta eroso joatea bermatuko die egunero bi herrien artean mugitzen diren pertsoneri, eta lehen mailako baliabide zikloturista bihurtuko da", adierazi du.

### **37 ikastetxe**

Bigarren ekimen batean, datorren ikasturtearen hasieran, hezkuntza proiektu berri bat jarriko da abian, Lehen Hezkuntzako 6. mailako Arabako ikasleen artean bizikleta garraiobide jasangarri eta osasungarri gisa erabiltzea sustatzeko. "Arabarren belaunaldi berrien hezkuntza eta sentsibilizazioa funtsezkoa da gaur eta, batez ere, bihar, mugikortasun jasangarrian aurrera egiteko".

Lurraldeko 11 ikastetxetan ikasturte honetan garatutako esperientzia pilotuaren harrera bikainetik sortu da proiektu hau, ia 500 ikaslek hartu baitute parte. "Abal horrekin –azaldu du Nogalesek–, aurten Lehen Hezkuntza ematen duten Arabako 37 ikastetxeetara zabalduko dugu proiektua, Vitoria-Gasteizen kokatuta daudenetara izan ezik, eta Sailaren egiturazko programa bihurtuko dugu".

Saioek 3-4 bat orduko iraupena izango dute, eta "Beste bizikleta bat" metodologian oinarritutako prestakuntza teorikoa eta praktikoa izango dute. Metodologia horrek Bizikletaren aldeko hirien eta lurraldeen sarearen laguntza du eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak erabiltzen du hezkuntza ikastaro eta kanpainetan.

Prestakuntza teorikoak bizikletaren erabilerak pertsonen osasun fisiko eta mentalerako eta ingurumenerako dituen onurak transmitituko dizkie ikasleei, baita bide segurtasunari buruzko oinarritzko nozioak (bizikletaren erabilera arduratsua eta bizikidetzaren arauak) eta oinarritzko mekanikari buruzko ezagutza teorikoak ere (bizikletaren elementuak eta funtzioa, ergonomia, ziztada bat konpontzea, gurpilen mantentze lana, aldagailuak eta frenoak berrikustea eta doitzea, etab.).

Prestakuntza praktikoari dagokionez, ikasleek bizikletari buruzko trebetasun probak egingo dituzte, ikasteko distantziak kontrolatzen oztopo finkoekin, eta bizikleta esku batez kontrolatzen eta atzera begiratzen mugimenduan ibilbidea galdu gabe. Era berean, larrialdiko geldialdiak, biraketa handiak eta zirkulazio motela egingo dituzte, eta ariketa errealak egingo dituzte oinezkoekin eta beste garraiobide batzuekin bizitzeko arauak nola aplikatzen dituzten erakusteko.

Azkenik, eta amaiera gisa, bizikleta irteerak programatuko dira ikastetxetik kanpo, ibilbide seguruak egiteko, monitoreekin batera.